

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AIREONTZI-BARRUALDEA HORNITZEKO MANTENTZE-LAN OSAGARRIAK	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0964		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Aeronautika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Aeronautikako mantentze-lan osagarriak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Aireontzi-lantegiko lan osagarriak.	Iraupena	210
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Sistema mekanikoen eta aireontzietako fluidoan mantentze-lan osagarriak.	Iraupena	50
	Aireontzietako motorren eta helizeen mantentze-lan osagarriak.		40
	Aireontzietako sistema elektrikoan mantentze-lan osagarriak.		60
	Aeronautikako segurtasuna eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa (Zeharkakoa)		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1316_1 AIREONTZI-LANTEGIKO MANTENTZE- ETA ZERBITZU-LAN OSAGARRIAK EGITEA gaitasun-ataleko LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Barrualdeko altzari-elementu ohikoenen mantentze-lanak deskribatzea eta egitea.

EI1.1 Altzari-elementuak (sukaldeak, eskifaik atsedean hartzeko lekuak, besaulkiak, komunak eta maletategiak, besteak beste) deskribatzea.

EI1.2 Barrualdeko altzari-elementuak desmuntatzeko eta muntatzeko prozedurak ezagutzea. Altzari-elementuak muntatzeko modu ohikoenak eta kontuan hartu beharreko alderdiak.

EI1.3 Barrualdeko altzari-elementuen ikuskapenak.

A2: Barrualdeko altzari-elementu desmuntatuen konponketa ohikoenak identifikatzea.

EI2.1 Desmuntatutako elementuen egitura-osagai metalikoen konponketa sinpleak egitea.

EI2.2 Desmuntatutako elementuen egitura- edo estaldura-osagai plastikoen eta zuntzekoen konponketa sinpleak egitea.

A3: Barrualdeko altzari-elementuen parte diren osagaien akabera-metodoak identifikatzea.

EI3.1 Pintura-ukitu txikiak ematea.

EI3.2 Barrualdeko altzari-elementuei korrosioaren kontrako tratamendua emateko metodoak ezagutzea.

EI3.3 Aireontzi-barrualdeko osagaien garbiketa mekanikoa eta kimikoa egiteko metodoak identifikatzea.

EI3.4 Osagaiak konpondu edo ikuskatu eta gero berritzeko beharra badute, osagaiei estaldura elektrolitikoa emateko metodoak deskribatzea.

Edukiak

1. Aireontzi-barrualdeko altzari-osagaiak.

- Aireontzi zibiletako osagaiak.
 - Sukaldeak.
 - Komunak.
 - Maletategiak.
 - Eskifaik atsedean hartzeko lekuak.
 - Besaulkiak.
- Aireontzi militarretako osagaiak.
 - Paraxutista-eserlekuak.
 - Pixatokiak.
 - Kargak maneatzeko garabiak.
 - Kargak arrastatzeko/blokeatzeko osagaiak.
 - Blokeatze-kakoak.
 - Arrabol-errailak.
 - Arrastatzeko bolen zoruak.

- Misio-aireontzien ohiko osagaiak (itsas eskifaia, arrantza-eskifaia eta abar).
 - Radar-operadorearen kontsolak.
 - Behatzaileen burbuila-leihoak.

2. Osagaien finkatze-sistemak.

- Profil artekadun eta krisket bidezko finkagailuak.
- Krisket bizkordun finkagailuak.
- Torloju/txerto bidezko finkagailuak.
- Presio-/txertatze-baliabide bidezko lokailuak.

3. Osagai ohikoenen ikuskapena eta konponketa.

- Elementu metalikoen ikuskapena eta konponketa sinpleak.
- Elementu plastikoen eta erretxindun eta zuntzezko ehun/hautsdunen (plastokimika) ikuskapena eta konponketa sinpleak.
- Korrosioa ezabatzeko metodoak:
 - Metodo mekanikoak.
 - Metodo kimikoak (zelula elektrokimikoa).

4. Akabera eta pintura-ukituak emateko metodoak.

- Korrosioaren aurkako tratamendua emateko metodoak deskribatzea.
 - Konposatu korrosio-inhibiltzaileak ematea. Hartu beharreko neurriak.
 - Zigilatzaileak ematea.
- Gainazal-akabera motak.
 - Akabera elektrolitikoak.
 - Alodinea ematea, anodizatzea, inprimazioak, pinturak eta azken garbiketa.
 - Errosetak eta marka edo adierazle pintatu edo itsasgarriak (pegatinak) berritzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Aeronautikako mantentze-lan osagarriak